

Maddi Aiestaran Iparragirre

A maila • 1 saria

Emakumearen aurkako indarkeria-kasurak eguneroko gertakari beltz bilakatu zaizkigun honetan, bertso-sorta bat idatzi nahi izan dut gizartearen gaitz beldurgarri hori nozitu duten emakume guztien omenez. Urte luzez eta isil-isilik bikotekidearengandik tratatu txarrak jasan dituen emakume bat da bertso-sorta honetako protagonista; salaketa jartzera ausartu den unean izan dituen burutazioak papereratu ditut. Irakurlea ere, neure moduan, errealitate gordin hori bizi duten emakumeen azalean jarri nahi izan dut, bene-benetan eta irmoki gaitzesteko jokabide deitoragarri hori. Ea gustatzen zaizuen!



Doinua: Hogeigarren urtera (Amets Arzallusen moldaketa)

AMAITU DA

1-

Desagertzeaz dago
zure erresuma,
besteak txikitze
duzun gaitasuna.
Nahiz nigandik ez duzun
askorik entzuna,
ea gustatzen zaizun
gaurko erantzuna.
Kanporatzeko nire
barneko asuna,
behingoz entzun dadila
nire oihartzuna.
Kanporatzeko nire
barneko asuna,
kontatu behar diet
egin didazuna.

3-

Gogoan dut gaztetan
genuen "kimika",
elkar musukatzeko
nolako irrika.
Nahiz izaten genuen
zenbait ika-mika,
guztia zen egia,
guztia polita.
Baina behin hasi zinen
ozen garrasika,
ni txiki sentitze
hamaika teknika.
Baina behin hasi zinen
ozen garrasika,
eta guztia bota
zenuen harrika.

2-

Esan didate "aulki
horretan eseri",
hemen daramat ia
ordu eta erdi.
Bi eskuetan daukat
dardara gehiegi,
minez zimurtu zaizkit
bekain eta begi.
Aurrean izan ditut
hainbat amildegi,
baina bizitzak beti
ditu bi aurpegi.
Aurrean izan ditut
hainbat amildegi,
orain zu erortzea
ez al da zilegi?

4-

Nire etsipena zen
zuretzako grina,
kordea galdu arte
gelditu ezina.
Zu nire erregea,
ni zure panpina,
munstro handi bat zara,
traidore zikina.
Nahiz eta ahazteko
egin ahalegina,
ezabaezina da
jasandako mina,
Nahiz eta ahazteko
egin ahalegina.
zuri pozik egingo
nizuke berdina.

5-

Bateko kolpe eta
besteko iraina,
sakona da eragin
didazun orbaina.
Hazi-hazi eginda
ikararen zaina,
gorrotoari ezin
harturik tamaina.
Pauso hau ematea
kostatu zait baina,
behingoz hartuko diot
beldurrari gaina.
Pauso hau ematea
kostatu zait baina,
hau da egin didazun
minaren ordaina.

6-

“Zatoz zure zain dago
salaketa gela”,
segidan dantzari jarri
da nire sabela.
Kontatu diet nire
bizipen krudela,
sinatu dut zulora
bidal zaitzatela.
Atzean utziko dut
minaren tunela,
amaitu baita tratu
gaiztoen nobela.
Atzean utziko dut
minaren tunela,
amaitu da betiko
niretzat kartzela!